


Pilar Irigoien kargutik kendu du Nafarroako Gobernuak

Sodena enpresa publikoko buruak kontratu bat sinatu zuen CENekin 2020an, maskarak erosteko • 1,2 milioiren galera eragin du operazioak

Ion Orzaiz - Edurne Begiristain

Aulkia kendu diote. Pilar Irigoien, Sodena sozietate publikoko zuzendari kudeatzailea, kargutik kendu du Nafarroako Gobernuak, 2020ko maiatzean sinatutako kontratu batean atzemandako irregulartasunengatik. COVID-19aren izurriaren hasieran egin zuten akordioa Sodenako buruak eta Jose Antonio Sarriak, CEN Nafarroako Enpresarien Elkargoko presidente zenak, maskara kirurgikoen hornidura bermatze aldera. Itun horren arabera, Nafarroako enpresek behar zituzten maskara guztien estimazioa egin zuen CENekin; Sodenak, berriz, bi milioi euro pagatu zizkion Albyn Medical enpresari, maskarak eros zitzaizkion.

Nafarroako Gobernuak Kontu-Hartze Zuzendaritzak 2022ko uztailearen 27an sinatutako txosten batek, baina, kolokan jarri du hitzarmen hura. Gobernuak ikuskatzaileen arabera, «irregulartasunak» daude kontratuan: alde batetik, Ogasun Publikoko Foru Legean ezarritako interes tasak gaitzitzen ditu; bestetik, 2020an izurria dela-eta ezohiko kontratuak egiteko ezarri ziren baldin-



Pilar Irigoien, 2015ean, artxiboko irudi batean. IÑIGO URIZ / FOKU

tza orokorrak urratzen ditu, eta azkenik, Sodenak ez zuen gobernuaren baimenik jaso halako operazio bat sinatzeko. Kontu Hartze Zuzendaritzaren arabera, kontratu hark 1,2 milioi euroren galera eragin dio sozietate publikoari. Izan ere, Espainiako Gobernuak legez mugatu zuen maskaren gehienezko prezioa, eta, 2020ko udatik aurrera, enpresek ez zuten Sodenak eskatutako maskara horien guztien beharrik

izan. Ordurako, baina, sozietate publikoak aurreratua zuen dirua. Uneotan, 1,7 milioi maskara dauka Iruñerriko bi biltegitan pilatuta, diru publikoekin ordainduak.

Operazio horren ardura Pilar Irigoienena dela ebatzi du Nafarroako Gobernuak, eta kargutik kendu du. Javier Remírez lehendakariordearen ustez, auziak frogatzen du «gobernuaren barne kontrolek ongi funtzionatu dutela».

